

2016ko AZAROAREN 24an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA 15 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2016ko azaroaren 24an, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez da etorri	Ane Arruti Lopetegi and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Osoko bilkura hasi aurretik, **alkate** jaunak gogora ekarri du JOSE RAMON SANTAMARIA URKIA JN.: atzo zendu zena eta, Udaleko zinegotzi izateaz gain, Ikastolaren sortzailetarikoa izan zena eta hainbat urtetan Zarauzko Gurutze Gorriko presidentea ere. Halaber, Udalbatzaren izenean, dolumina sentikorrena adierazi dio familiari.

Jarraitu du **batzarburu** jaunak eta, gai-zerrendari heldu aurretik, Udalbatzak adostutako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hauek irakurri ditu:

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO
EGUNA”

Nazio Batuen Batzar Nagusiak arazoaren 25a izendatu zuen emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna, eta, egun hori kontuan hartuta, bat egiten dugu emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko 2011ko Europako Hitzarmeneko oinarriekin, ‘Istanbuleko Hitzarmena’ delakoarekin; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Europako lehenengo tresna juridiko loteslea da, baita giza eskubideen urraketa larri horren aurrean irismen handiena duen nazioarteko ituna ere.

Bertan, estatuen ardurapeko eremu guztiak jorratzen dira: indarkeria prebenitzea, gizartea sentsibilizatzea (batez ere gizonak eta haurrak), erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, erasotzaileen aurkako ekintza judizialak hastea eta biktimekiko babesa, laguntza eta kalte-ordaina bermatzea, erabili daitezkeen bitartekoen bidez.

Istanbuleko Hitzarmena 2014ko abuztuan berretsi zuen Espainiako Estatuak, eta, hartara, arau guztiz loteslea bilakatu zen, erakunde zentral eta autonomikoetan zein tokiko erakundeetan. Hitzarmena funtsezko tresna dela uste dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatu ahal izateko esparru gisa baliagarria da.

Horiek horrela, Istanbuleko Hitzarmena ezartzen dela bermatzeko, Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du Hitzarmenean xedatutako neurrien kalitatezko estandarrak eta betearazpen-maila egiaztatzeko, baita gai horri loturiko nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko beste arauetakoak ere.

Hona hemen neurri zehatz batzuk:

1. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen esparrura eramatea.
2. Emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinak identifikatzea eta aurre egiteko dinamikak bultzatzea, normalizazioan ez erortzeko makro zein mikro-erasoak salatuz.
3. Harreman intimoetako emakumeen aurkako indarkeria, adierazpen ugaritako indarkeria sexuala, emakumezkoen mutilazio genitala eta jazarpen sexista sartzea emakume eta neskatilen aurkako indarkeriaren kontzeptuaren barruan.
4. Hitzarmena ezartzeko esparruan sartutako indarkeriaren modu guztiei buruzko gaien inguruko datu estatistiko datu xehe eta bereizleak jasotzea, tarte erregularren arabera.
5. Generoaren ikuspegia eta diskriminazioaren debekua ezartzea, indarkeriaren esparruko printzipio nagusi gisa.
6. Indarkeriari aurre egiten dioten emakumei rol nagusia esleitzea programen ebaluazioan eta jarraipenean, eskubideen titular gisa.
7. Emakumeen intimitate-eskubidea ezartzea arretako bide osoan.
8. Indarkeriaren aurkako haurren eskubideak berariaz aipatzea, batez ere, neskatilen eskubideak.
9. Arretako langileen prestakuntza derrigorrez aitortzea, eta ez sentsibilizaziorako ekintza soil gisa.
10. Gizarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta borrokatzen laguntzea sustatzea. Berdintasun politikak sustatuz eta eraso matxisten kontrako protokoloak indartuz edo martxan jarriz eta gizartearen erantzun soziala sustatuz.

11. Erakundeen arteko koordinazioa bultzatu tokiko protokoloak martxan jarritz, arreta zerbitzuak hobetzeko eta indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen birbiktimizazioa ekiditeko.
12. Mugimendu feministarekin eta emakume elkarteekin elkarlana bultzatu.
13. Gai honetan, Zarauzko Udalak, bere aurrekontu orokorrean izango duen igoera, Indarkeria Sexista partidari igoera portzentuala aplikatzeko konpromisoa hartzen du. Aurrekontu orokorrak Igoerarik ez balu, partida mantendu egin beharko litzateke.

Bukatzeko Zarauzko Udalak bat egiten du azaroaren 25erako deituak izan diren mobilizazioekin eta jendarte osoari deia luzatzen dio parte har dezan.

ZER EGIN DEZAKET NIK EUSKARAREN ALDE? EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA, 2016

ADIERAZPENA

Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela berrogei urte arte gizartean gainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera. Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da. Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker. Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker.

Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukera-berdintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, baita ere, indarberritzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialen berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.

Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristeak. Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntza-aniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoia eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboiei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen

sindikatuerei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nor bere neurrikoa, nor bere ahalaren arabera. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: "Zer egin dezaket nik euskararen alde?".

Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.

Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nor bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzeko eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.

Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, "Zer egin dezaket nik euskararen alde?" galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz.

Ondoren, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

Osoko bilkura honetan egindako bozketa guztietan kontuan hartu da EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ane Arruti Lopetegi andreak bere botoa eskuordetzan utzi ziola bere taldearen bozeramaile Mikel Goenaga jaunari; eta hori, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 25.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

GAI-ZERRENDA

1.- ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA

2016 O 020 0002 espedientea

Ondoren, **Idazkariak** gai honi dagokionez jarraitu beharreko prozedurari buruz berak egindako txosten juridikoa irakurri du. Eta jakitera eman duenez, aurtengo azaroaren 7an (sarrera-erregistroan 12509 zk.) jaso den Hauteskunde Batzar Nagusiaren egiaztatgiriaren arabera,

KOLDOBIKA URIBARRI ZENEKORTA jauna

izendatu dute Zarauzko Udaleko zinegotzi, hain zuzen ere, 2015eko maiatzaren 24ko

Udal Hauteskundeetarako EUZKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV) alderdiak aurkeztutako hautagai-zerrendan zegoena, Imanol Lasa Zeberio jauna ordezkatzeko.

Era berean, idazkariak Udalbatzarrari adierazi dio, eta hau jakinaren gainean geratu da, aipatutako zinegotzi hautetsiak aurkeztu dituela bai bateraezintasun kausei buruzko eta egiten dituen jardueri buruzko aitorpena bai ondarezko ondasunen aitorpena, Udalbatzarrak 1999ko ekainaren 24an egindako osoko bilkuran onartu zuen ereduaren arabera; eta horiek Korporazioko kideen Interesen Erregistroan inskribatuta geratu direla.

Segidan, legezko izapideak bete ostean eta –hauteskunde-legedian legez ezarritako formularen arabera– aurrez hitz eman ondoren, **Uribarri** jaunak kargua formalki hartu du, eta ondorio guztietarako Zarauzko Udaleko zinegotzi izaera eskuratu du.

2.- 2016ko URRIAREN 27ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

3.- ALKATETZAREN KUDEAKETAREN KONTROLA: 2016ko URRIAREN 24tik AZAROAREN 18ra BITARTEKO DEKRETUAK

Segidan, Alkatetzak 2016ko urriaren 24tik azaroaren 18ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN KUDEAKETAREN KONTROLA: 2016ko AZAROAREN 2tik 14ra BITARTEKO ERABAKIAK

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko azaroaren 2tik 14ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

5.- TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN HARRERA-APARTAMENTUA ARAUTZEKO ARAUTEGIAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

2016 I 133 0003 espedientea

2010eko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak onartu egin zuen TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN HARRERA-APARTAMENTUA ARAUTZEKO ARAUTEGIA.

Orain beharrezkotzat jo da arautegi hori aldatzea, indarrean dagoen legeria betetzeko eta gaur egungo beharretara egokitzeko.

2016ko azaroaren 10ean egindako bileran, Herritarren arloko informazio-batzordeak aldaketa horiek aztertu zituen.

Herritarren arloko informazio-batzordeak aurkeztutako proposamena ikusita, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN HARRERA-APARTAMENTUA ARAUTZEKO ARAUTEGIaren aldaketari, ondoren zehazten den moduan:

- Aldaketak sartu dira 12. artikuluan (Tasak eta ekarpen ekonomikoak)
- Artikulu berri bat sortu da, 13. artikulua (Diziplina-araubidea)

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den iragarkiaren bidez. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da iragarkia.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, erregalamenduaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

IDAZKERA BERRIA

12. artikulua. Tasak eta ekarpen ekonomikoak

12.1. Tasak

Dagokion ordenantza fiskalean jarritako urteko tasa ordaindu beharko dute zerbitzu honen erabiltzaileek.

Etxebizitza hau familia batek baino gehiagok erabili behar badu, jarritako tasa bizikidetzaren kopuruen artean zatitu eta ordainduko da.

12.2. Ekarpen ekonomikoak

Egonaldia lehenengo 8 hilabeteetan DOAKOA izango da genero indarkeriako biktima diren emakumeentzat, horretarako oinarri modura hartuta urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

Egonaldia epe hori baino gehiago luzatuko balitz:

- a) Ezarritako tasaren %100 ordainduko dute erabiltzaileek kasu hauetan:

- Baldin eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetz-unitate baterako jarritako kopuruaren %150etik gorako diru-sarrerak baditu erabiltzaileak.
- b) **Ezarritako tasaren** %50 ordainduko dute erabiltzaileek ondorengo egoeretan:
 - Baldin eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetz-unitate baterako jarritako kopuruaren %100etik gorako diru-sarrerak eta %150 edo hortik beherakoak baditu erabiltzaileak.
- c) **Erabiltzailea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuraduna bada, edo bere diru-sarrerak prestazio horren kopuru berdinekoak badira, gehienez, horien %30a ordainduko du, apartamentuko egonaldiagatik.**

Bizikidetz-unitateak kide bat baino gehiago baditu, koefiziente bat aplikatuko zaio bere aportazioa kalkulatzeko.

KIDE KOPURUA	KIDE BERRIENGATIK aplikatu beharreko koefizientea
1	1,00
2	0,95
3	0,90
4	0,85
5	0,80

- d) Erabiltzaileak ez badu diru-sarrerarik edo diru-sarrera hori ez bada Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kopurura iristen, zerbitzua dohainik izango du.

Hala ere, baldin zerbitzua erabiltzeko eskaera beste erakunde edo administrazio publiko batek egin badu, honek egonaldia osoaren kostea % 100 ordainduko du.

13. artikulua. Diziplina-araubidea.

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, II. Kapituluaren arautzen duenari lotuta dago atal hau. Honako hauek dira arau-haustea:

13.1. Arau-hauste arinak.

- a) Zerbitzuen erabiltzaileek ez betetzea ezarritako arau, eskakizun eta prozedurak, edo ez jarraitzea gizarte zerbitzuen programa eta jarraibideak, halako eran, non gizarte esku-hartzearen xedea desitxuratu den.
- b) Zuzendaritzako arduradunari, zerbitzuko edo zentroko pertsonaleko kideei, erabiltzaileei eta bisitariei zor zaien begiruneari arinki huts egitea.
- c) Instalazioak modu desegokian erabiltzea edo zerbitzuko jarduerak asaldatzea, bizikidetzako eta elkarrekiko errespetuko arauak aldaraziz eta bizikidetzari kaltea eraginez.
- d) Erabiltzaileentzako eta profesionalentzako barne-erregelamenduan jasotzen diren betebeharrak ez betetzea, betetze hori, bere izatasunagatik eta larritasunagatik, larrizat edo oso larrizat tipifikatua izan ez denean.

13.2. Arau-hauste larriak.

- a) Utzitako instalazioak bere xederako ez beste baterako erabiltzea.
- b) Zuzendaritzako arduradunari, pertsonaleko kideei, erabiltzaileei eta bisitariei zor zaien begiruneari larriki huts egitea.
- c) Etxebizitzaren ondasun eta ekipamenduetan kalte larriak egitea, edo etxebizitzaren zerbitzuen ohiko garapenari edo bizikidetzari galera nabariak eragitea.
- d) Barne-araubideko kasuan kasuko erregelamenduan jasotzen diren betebeharrak larriki ez betetzea, ez betetze hori oso larria ez denean.
- e) Arau-hauste arinetan berrerortzea.

13. 3. Arau-hauste oso larriak.

- a) Zerbitzua emateko kontuan izan diren datuak ezkutatzea edo faltsutea.
- b) Zentroko arduradunari, pertsonaleko kideei, erabiltzaileei edo bisitariei eraso egitea edo tratu txarrak ematea.
- c) Zentroaren, pertsonalaren, erabiltzaileen edo bisitarien ondasunak ostea.
- d) Zentroko ondasun eta ekipamenduetan, zerbitzuen ohiko garapenean edo zentroko bizikidetzan kalte edo galera oso larriak eragitea.
- e) Arau-hauste larrietan berrerortzea.

13. 4. Berrerortzea.

Lege honen ondorioetarako, arau-haustea behin baino gehiagotan egin dela edo berrerortzea egon dela esango da arau-haustea egin duenak bi urteko epe barruan izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin duenean, eta ebazpen irmo baten bidez aitortua izan denean.

13. 5. Preskripzioak

Lege honetan tipifikatzen diren arau-hauste oso larriak lau urtera preskribatuko dira, larriak hiru urtera, eta arinak urtebetera, arau-haustea egin den datatik kontatzen hasita.

Hutsegite oso larriengatik ezartzen diren zigorrak, berriz, lau urtera preskribatuko dira, larriak hiru urtera, eta arinak urtebetera, zigorra ezartzen duen ebazpenak irmotasuna hartzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

13. 6. Zigor araubidea.

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-haustek lege honetan aurreikusitako zerbitzu baten erabiltzaileei edo prestazio ekonomikoen onuradunei eta gizarte-zerbitzuetako profesionali leporatzekoak direnean, honako zigor hauek aplikatuko dira:

- a) Arau-hauste arinak idatzizko ohartarazpen baten bidez eta 200 eurorainoko isun baten bidez zigortuko dira.
- b) Arau-hauste larriak ahozko eta idatzizko ohartarazpen baten bidez eta 201 eurotik 600 eurora bitarteko isun baten bidez zigortuko dira.
- c) Arau-hauste oso larriak ahozko eta idatzizko ohartarazpen baten bidez eta 601 eurotik 1.500 eurora bitarteko isun baten bidez zigortuko dira.

Arau-haustetik aberaste bidegabea ondorioztatzen den kasu guztietan, pertsona edo erakunde arau-hausleak, arau-haustearen larritasunaren arabera dagokion isunaz gain, aberaste horren zenbateko baliokidea ordaindu beharko du.

12/2008 Legean arautzen diren zerbitzuen erabiltzaileei edo prestazio ekonomikoen onuradunei leporatu ahal zaizkien arau-hauste oso larrietan, zigor gisa, eskubidearen etendura ere pilatu ahal izango da sei hilabeteko aldi batean, zenbait kasutan izan ezik; adibidez, etendura horrek babesgabetasun-egoeraren bat sor balezake edo mendekotasuneko egoeran dagoen pertsona baten arreta eza eragin balezake.

13. 7. Zigorren graduazioa.

Zein zigor jarriko den zehazteko eta, behar izanez gero, isunen zenbatekoa eta aldi baterako zigorren iraupena graduatzeko, arau-haustea eragin duen gertakariaren larritasunarekiko egokiak eta proportzionalak izango dira zigorrak, eta, bereziki, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Eragindako kalte fisiko, moral eta materialak.
- b) Pertsona eta ondasunentzat sortutako edo mantendutako arrisku egoera.
- c) Arau-haustea egitean erabili den zabarkeria edo intentzio maila.
- d) Berrerortzea edo arau-haustea behin baino gehiagotan egitea.

e) Arau-haustearen eragin ekonomikoa eta soziala.

Prozedura hasarazi zuten akatsak guztiz zuzenduta daudela egiaztatzen bada zuzenbidean balio duen edozein bide erabilia, kontuan hartu ahal izango da hori zigorra balioesteko eta graduatzeko orduan, baina instantziaren ebazpena eman aurretik egin behar da, eta betiere pertsona edo erakunde arau-hauslearen ekimenez.

6.- GIZARTE LARRIALDIKO APARTAMENTUEN ARAUTEGIAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

2016 I 133 0005 espedientea

2010eko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak onartu egin zuen GIZARTE LARRIALDIKO APARTAMENTUEN ARAUTEGIA

Orain beharrezkotzat jo da arautegi hori aldatzea, indarrean dagoen legeria betetzeko eta gaur egungo beharretara egokitzeko.

2016ko azaroaren 10ean egindako bileran, Herritarren arloko informazio-batzordeak aldaketa horiek aztertu zituen.

Herritarren arloko informazio-batzordeak aurkeztutako proposamena ikusita, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehen. Hasierako onespena ematea GIZARTE LARRIALDIKO APARTAMENTUEN ARAUTEGIAREN aldaketari., zehazten den moduan:

- Aldaketak sartu dira 6., 7., 9. eta 10. artikuluetan.
- Artikulu berri bat sortu da, 12. artikulua (Diziplina-araubidea).

Bigarrena.- Espedientea jendurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den iragarkiaren bidez. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da iragarkia.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, arautegiaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

IDAZKERA BERRIA

6. artikulua. Zerbitzuaren iraupena:

Zerbitzua ematea erabakitzen bada, Alkatezaren ebazpenean egonaldiaren iraupena agertuko da. Iraupena finkatzeko kontuan hartuko dira, batetik, kasuaren ezaugarriak, eta, bestetik, zein aukera egon daitekeen

zerbitzua eman eta beharra eragin duen egoera konpontzeko. Edonola ere, 4 hilabeteko epea igaro ondoren, beste gizarte baliabide, gizarte-programa, etxebizitza-baliabide edo etxebizitza-programa batzuen bidez erantzun ahal izango zaio bizitoki premiari, betiere, premien balioespen batek hori aholkatzen badu.

Hala ez bada, hasiera batean ezarritako epea 6 hilabetez luzatu ahalko da, betiere harrera eragin zuten baldintzak aldatzen ez badira, eta banan-banako planean ezarritako helburuak betetzen ari direla baloratu ostean.

Dena dela, egonaldia gehienez ere 24 hilabetekoa izango da, apartamentuan egondako lehenengo egunetik kontatzen hasita.

7. artikulua. Zerbitzua **etetea eta bukatzea.**

Zerbitzua ondorengo arrazoiengatik bukatuko da:

- Egonaldiaren denbora bukatzea
- Erabiltzaileak zerbitzuari uko egitea
- Heriotza
- Zerbitzuaren prestazioa eragin zuen beharraren arrazoia desagertzea

Zerbitzua ondorengo arrazoiengatik eten edo bukatu ahal izango da:

- Behin eta berriz 4 arau hauste arinak egitea
- Bi arau hauste larri egitea
- Arau hauste larri bat egitea
- Zerbitzuan sartzeko eskatutako baldintzetako bat galtzea
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko beharrezkoa den dokumentazioa ez aurkeztea
- Arautegi honetan erabiltzaileentzat jarritako betebeharrak ez betetzea
- Arrazoirik gabe ez bertaratzea

Dagokion espediente izapidetu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendaritzak hala proposatuta, zerbitzuaren prestazioa tokatzen zaion eguna baino lehen **etetea edo** bukatzea erabaki ahal izango da, dagokion ebazpena hartuta, eta aurrez interesdunari entzunda.

9. artikulua: Tasak

Dagokion ordenantza fiskalean jarritako urteko tasa ordaindu beharko dute zerbitzu honen erabiltzaileak.

Etxebizitza hau familia batek baino gehiagok erabili behar badu, ezarritako tasa bizikidetzaren unitate kopuruaren artean zatitu eta ordainduko da.

10. artikulua: Erabiltzaileen diru-ekarpenak:

- a) Kasu hauetan, egonaldiaren kostuari aurre egingo zaio lehen momentutik:
 - Baldin eta erabiltzaileak gizarte larrialdiko apartamentua erabiltzen badu hondamendi, sute eta antzeko fenomenoen ondorioz, eta harrera eragin duen zirkunstantziaren edo istripuaren gastuak estaltzeko aseguru bat kontratatuta badu, betiere ordezkoko bizilekua aseguraturako kontzeptu modura sartu badaiteke.
 - Baldin zerbitzua erabiltzeko eskaera beste erakunde batek egin badu, 3b artikuluan adierazitako moduan.
- b) Ezarritako tasaren ordainketari aurre egiten hasiko dira erabiltzaileak egonaldia 4 hilabete baino gehiagok luzatzen bada. Aurrez ez dute zerbitzua ordainduko.
- c) Egonaldiaren bosgarren hilabetetik bukaera arte, ezarritako kopuruaren %100 ordainduko dute erabiltzaileek kasu hauetan:
 - Baldin eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetzaren unitate baterako jarritako kopuruaren %150etik gorako diru-sarrerak baditu erabiltzaileak.

- d) **Ezarritako tasaren** %50 ordainduko dute erabiltzaileek ondorengo egoeretan:
- Baldin eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetzaren unitate baterako jarritako kopuruaren %100etik gorako eta %150 edo hortik beherako diru-sarrerak baditu erabiltzaileak.
- e) Erabiltzailea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuraduna bada, edo bere diru-sarrerak prestazio horren kopuru berdinekoak badira, gehienez, horien %30a ordainduko du, apartamentuko egonaldiagatik.

Bizikidetzaren unitateak kide bat baino gehiago baditu, koefiziente bat aplikatuko zaio bere aportazioa kalkulatzeko.

KIDE KOPURUA	KIDE BERRIENGATIK aplikatu beharreko koefizientea
1	1,00
2	0,95
3	0,90
4	0,85
5	0,80

- f) Erabiltzaileak ez badu diru-sarrerarik edo diru-sarrera hori ez bada Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kopurura iristen, zerbitzua dohainik izango du.

12. artikulua: Diziiplina-arubidea.

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, II. Kapituluaren arautzen duenari lotuta dago atal hau. Honako hauek dira arau-haustea:

12.1. Arau-hauste arinak.

- a) Zerbitzuen erabiltzaileek ez betetzea ezarritako arau, eskakizun eta prozedurak, edo ez jarraitzea gizarte zerbitzuen programa eta jarraibideak, halako eran, non gizarte esku-hartzearen xedea desitxuratu den.
- b) Zuzendaritzako arduradunari, zerbitzuko edo zentroko pertsonaleko kideei, erabiltzaileei eta bisitariei zor zaien begiruneari arinki huts egitea.
- c) Instalazioak modu desegokian erabiltzea edo zerbitzuko jarduerak asaldatzea, bizikidetzako eta elkarrekiko errespetuko arauak aldaraziz eta bizikidetzari kaltea eraginez.
- d) Erabiltzaileentzako eta profesionalentzako barne-erregelamenduan jasotzen diren betebeharrak ez betetzea, betetze hori bere izatasunagatik eta larritasunagatik, larritzat edo oso larritzat tipifikatua izan ez denean.

12.2. Arau-hauste larriak.

- a) Utzitako instalazioak bere xederako ez beste baterako erabiltzea.
- b) Zuzendaritzako arduradunari, pertsonaleko kideei, erabiltzaileei eta bisitariei zor zaien begiruneari larriki huts egitea.
- c) Etxebizitzaren ondasun eta ekipamenduetan kalte larriak egitea, edo etxebizitzaren zerbitzuen ohiko garapenari edo bizikidetzari galera nabariak eragitea.
- d) Barne-araubideko kasuan kasuko erregelamenduan jasotzen diren betebeharrak larriki ez betetzea, ez betetze hori oso larria ez denean.
- e) Arau-hauste arinetan berrerortzea.

12.3. Arau-hauste oso larriak.

- a) Zerbitzua emateko kontuan izan diren datuak ezkatzea edo faltsutzea
- b) Zentroko arduradunari, pertsonaleko kideei, erabiltzaileei edo bisitariei eraso egitea edo tratu txarrak ematea.
- c) Zentroaren, pertsonalaren, erabiltzaileen edo bisitarien ondasunak ostea.

- d) Zentroko ondasun eta ekipamenduetan, zerbitzuen ohiko garapenean edo zentroko bizikidetzan kalte edo galera oso larriak eragitea.
- e) Arau-hauste larrietan berrerortzea.

12.4. Berrerortzea.

Lege honen ondorioetarako, arau-haustea behin baino gehiagotan egin dela edo berrerortzea egon dela esango da arau-haustea egin duenak bi urteko epe barruan izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin duenean, eta ebazpen irmo baten bidez aitortua izan denean.

12.5. Preskripzioak

Lege honetan tipifikatzen diren arau-hauste oso larriak lau urtera preskribatuko dira, larriak hiru urtera, eta arinak urtebetera, arau-haustea egin den datatik kontatzen hasita.

Hutsegite oso larriengatik ezartzen diren zigorrak, berriz, lau urtera preskribatuko dira; larriak hiru urtera, eta arinak urtebetera, zigorra ezartzen duen ebazpenak irmotasuna hartzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

12.6. Zigor araubidea.

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-haustek lege honetan aurreikusitako zerbitzu baten erabiltzailei edo prestazio ekonomikoen onuradunei eta gizarte-zerbitzuetako profesionaleri leporatzekoak direnean, honako zigor hauek aplikatuko dira:

- a) Arau-hauste arinak idatzizko zentzarazpen baten bidez eta 200 eurorainoko isun baten bidez zigortuko dira.
- b) Arau-hauste larriak ahozko eta idatzizko zentzarazpen baten bidez eta 201 eurotik 600 eurora bitarteko isun baten bidez zigortuko dira.
- c) Arau-hauste oso larriak ahozko eta idatzizko zentzarazpen baten bidez eta 601 eurotik 1.500 eurora bitarteko isun baten bidez zigortuko dira.

Arau-haustetik aberaste bidegabea ondorioztatzen den kasu guztietan, pertsona edo erakunde arau-hausleak, arau-haustearen larritasunaren arabera dagokion isunaz gain, aberaste horren zenbateko baliokidea ordaindu beharko du.

Zigor hauekin batera, dagokion egoeretan, erregalamendu honen 7. artikulua, zerbitzua etetea eta bukatzeari buruzkoa, ezarriko da.

12/2008 Legean arautzen diren zerbitzuen erabiltzailei edo prestazio ekonomikoen onuradunei leporatu ahal zaizkien arau-hauste oso larrietan, zigor gisa, eskubidearen etendura ere pilatu ahal izango da sei hilabeteko aldi batean, zenbait kasutan izan ezik; adibidez, etendura horrek babesgabetasun-egoeraren bat sor balezake edo mendekotasuneko egoeran dagoen pertsona baten arreta eza eragin balezake.

12.7. Zigorren graduazioa.

Zein zigor jarriko den zehazteko eta, behar izanez gero, isunen zenbatekoa eta aldi baterako zigorren iraupena graduatzeko, arau-haustea eragin duen gertakariaren larritasunarekiko egokiak eta proportzionalak izango dira zigorrak, eta, bereziki, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Eragindako kalte fisiko, moral eta materialak.
- b) Pertsona eta ondasunentzat sortutako edo mantendutako arrisku egoera.
- c) Arau-haustea egitean erabili den zabarkeria edo intentzio maila.
- d) Berrerortzea edo arau-haustea behin baino gehiagotan egitea.
- e) Arau-haustearen eragin ekonomikoa eta soziala.

Prozedura hasarazi zuten akatsak guztiz zuzenduta daudela egiaztatzen bada zuzenbidean balio duen edozein bide erabilia, kontuan hartu ahal izango da hori zigorra balioesteko eta graduatzeko orduan, baina

instantziaren ebazpena eman aurretik egin behar da, eta betiere pertsona edo erakunde arau-hauslearen ekimenez.

7.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINKO ZERGAN HOBARIA:

– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (Orokietan ikastetxe publikoan obrak)

2016 H 755 0024 espedientea

CEIP Orokietan HLH1 ikastetxe publikoa (Araba kalea 56) Udalaren jabetzakoa da, baina, aldi berean, hezkuntza sistema publikora adskribatuta dago, zehazki, derrigorrezko lehen hezkuntzako ziklo ematen da bertan.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak udal lizentzia eskatu zuen ikastetxeko sukaldea eraberritzeko eta jangela handitzeko (141 jankidetik 186ra). Obra gauzatzeko aurrekontua 348.511,99 €-koa da, BEZ barne. Hirigintza eta Ingurumeneko Udal Departamentuak izapidetuko du lizentzia-eskaera.

Lizentzia-eskaerarekin batera, eskatu zuten obra hori zergan salbuetsita dagoela adieraztea, edo, bestela, aurrekoa posible ez bada, obrari %1eko karga-tasa eta %95eko hobaria aplikatzea.

Errentetako udal teknikariak honako ondorioak dituen txostena egin zuten:

- Ezin da adierazi obra hori zergan salbuetsita dagoenik.
- Karga-tasa %1ekoa da, eskola eraikin batean egindako obra delako.
- %95eko hobaria aplikatu ahal izateko, adierazi behar da obra horrek interes berezia duela edo udal onurakoa dela. Udalbatzarrak dauka adierazpen hori erabakitze eskumena.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordeak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Adieraztea Orokietan ikastetxe publikoko sukaldea eraberritzeko eta jangela handitzeko obra interes berezikoa eta udal onurakoa dela.

Bigarrena.- Horren ondorioz, %95eko hobaria aplikatzea Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren (EIOZ) kuota kalkulatzeko denean. Aplikatuko den karga-tasa %1ekoa izango da.

8.- 2017rako AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK

2016 ZZZZ 0030 espedientea

2002an, Eusko Jaurlaritzak 2/2000 Legea (turismo ibilgailuetan eskainitako hiriko eta hiri arteko garraioa arautzen duena) garatzen duen Erregelamendua onartu zuen. Lege horrek ezarritakoaren argitara, ARAUBIDE BEREZIKO EREMUA eratu zen Urola Kostan, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia biltzen dituen. Hori guztia egin da, Lurralde Antolamendu eta Garapenerako Foru Diputatuaren aginduaren bidez (487/05 Foru Agindua, GAO 180 zk., 2005-09-22).

Urola Kostako Udal Elkarteak aurtengo irailaren 30eko idatziaren bidez (udaletxeko sarrera-erregistroan 11.081 zk.) Udal honi jakinarazi dionez, Taxiaren Eskualdeko Batzordeak erabaki du 2017rako taxien tarifei gehikuntzarik ez eskatzea eta 2016an onartu ziren prezioak mantentzea; eta, bide batez, Gipuzkoako Taxien Elkarteak aurkeztutako dokumentazioa bidali du, Udalbatza honek onar dezan.

Urola Kostako Taxiaren Eskualdeko Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, batzorde horrek aurkeztutako "Auto-taxiaren idatzia 2017ko tarifei buruz" kontuan izanik, Lurraldeko informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehen.- 2017. urterako Zarauzko AUTO-TAXI ZERBITZUAREN HIRI-TARIFAK onartzea, ondoren zehazten denaren arabera:

TARIFA	Abiasaria	Ibilitako km-ko	Itxoite-ordua
1*	5,2286 euro	1,1158 euro	21,3091 euro
2**	6,2240 euro	1,7796 euro	34,7829 euro

Gutxieneko tarifen barne hartuta daude 1,5 Km-ko ibilbidea egitea edo 5 minutuz itxopen egotea.

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, goizeko 07,00etatik gaueko 22,00etara.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, gaueko 22,00etatik goizeko 07,00etara. Era berean, 2. tarifa hau goizeko 07,00etatik gaueko 22,00etara aplikatuko da, igandeetan, dagokion autonomia- eta toki-arauegiaz zehaztutako jaiegunetan eta larunbatetan, eta baita abenduaren 24 eta 31n ere.

Bigarrena.- Akordio hau Urola Kostako Udal Elkarteari bidaltzea, arauzko izapideak bete ditzan.

9.- BIGARREN LANPOSTU BATERAKO BATERAGARRITASUN ESKAERA

2016 I 399 0065 espedientea

Eguneko aztergai honi dagokionez, **idazkariak** jakinarazi du ez dagoela inolako informazio-batzorderen irizpenik. Hori horrela, Toki-korporazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 82. eta 123. artikuluetan

xedatutakoaren arabera, eguneko gai-zerrendan sartzea berresteko bozketa egin behar da.

PRESA

Presa aitortzeko bozketa egin dute eta, aho batez, bertan dauden guztiak horren alde agertu dira.

Horrenbestez, presa duela adierazi ondoren, Udalbatzarrak berretsi du aztergaia osoko bilkura honetako eguneko gai-zerrendan sartzea, eta erabaki hau hartu du:

“E.M.S. andreak, Zarauzko Udalean lanaldi partzialean diharduen bitarteko funtzionarioa eta arkitektoa denak, bateragarritasuna eskatu du irakasle elkartu modura lan egiteko, astean 6 ordutan, Euskal Herriko Unibertsitatean.

Zarautzen egiten duen lanaldi erdiaren ordainsari gordina hilero 1705,22 eurokoa da (antzinatasuna barne). Horrez gain, aipatutako Unibertsitateak bidalitako informazioaren arabera, han egingo lukeen lanagatik hilero guztira 727,00 euroko soldata jasoko luke, aparteko ordainsaria jasotzeko eskubiderik gabe. Esan beharra dago aipatutako Unibertsitateak bateragarritasunaren aldeko txostena helarazi diola Zarauzko Udalari.

Kasu honi 53/1984 Legea zaio aplikagarri, abenduaren 25ekoa, Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzkoa. Giza baliabideetako arduradunak txostena egin du, eta Mendizabal andreari bateragarritasuna ematea posible dela ondorioztatu du. Izan ere, bi lanpostuen ordainsariak ez dituzte gehienezko ordainsariak gainditzen, eta, bestalde, alor publikoan bigarren lanpostu bat betetzeko debekuari salbuespena egiten dio 4.1. artikulua, modu honetan: *“Podrá autorizarse la compatibilidad, cumplidas las restantes exigencias de esta ley, para el desempeño de un puesto de trabajo en la esfera docente como Profesor universitario asociado en régimen de dedicación no superior a la de tiempo parcial (...) (598/1985 Errege Dekretuaren arabera astean gehienez ere 30 ordu) y con duración determinada (...).*

Hortaz, aurrekoa kontuan hartuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- E.M.S. andreari bateragarritasuna onartzea, eskatutako baldintzetan, irakasle elkartu modura lan egin dezan Euskal Herriko Unibertsitatean.

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunari zein Euskal Herriko Unibertsitateari jakinaraztea. Halaber, Antolakuntzako informazio-batzordeari honen berri emango zaio, hark egiten duen lehenbiziko bileran.”

10.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA: POBREZIA ENERGETIKOA PREBENITZEKO NEURRIAK ESKATZEKO MOZIOA

2016 O 001 0029 espedientea

Segidan, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako lehenbiziko proposamena irakurri dute. Honela dio:

JUSTIFIKAZIOA

Pertsonen ongizaterik ezin da egon energia eskuratzerik ez badute, izan ere, energia behar-beharrezkoa da edozein etxetan oinarrizko zerbitzuak izateko. Argia, klimatizazioa, elikagaien kontserbazioa, janaria prestatu ahal izatea eta ur beroa, besteak beste, pertsona guzti-guztiek eduki beharko lituzkete gutxieneko erosotasun-baldintzak eduki ahal izateko.

Pobrezia energetikoa honela definienezake: etxe batean sartzen den diruaren %10etik gora, energia-zerbitzuetan gastatzera behartuta dagoen familiak bizi duen egoera da pobrezia energetikoa.

Azken astean, temperatura baxuak iristearekin batera, azaro hori gaurkotasun bihurtu da, Reusen bizi zen emakume bat hil delako, Rosa, etxeko elektrizitatea moztu zioten emakume bat, alegia. Hori da arazo honen alderdirik latzena. Argitara ematen diren ikerketen arabera, Espainian, urtero, 7.000 heriotzetik gora eragiten ditu arazo horrek.

2014an, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Politika Sozialetako Departamentuak inkesta bat egin zuen pobrezia inguruko behar sozialei buruz, eta bertan adierazitakoaren arabera, urteko hilabeterik hotzenetan, etxea temperatura egokian edukitzeko arazoak izan zituzten 235.526 pertsonak, eta 38.255 pertsonak etxeko zenbait zerbitzuren hornidura eten zituzten (ura, argia eta telefonoa barne).

Ez Estatuko Gobernuak, ez eta Eusko Jaurlaritzak ere, ez dituzte behar beste neurri hartu arazoa konpontzeko.

Arazo honen aurkako neurriak eskatzen zituzten ekimen parlamentario asko blokeatu ditu Estatuko Gobernuak, zehazki esanda, neguan tregoa bat egitea, argindarra ez mozteko eskaera handieneko garaietan.

Eusko Jaurlaritzak ez ditu bete, edo partzialki bete ditu, Euskal Parlamentuak onartutako ekimenak, adibidez honako hauek: 31/2014 legez besteko proposamena (pobrezia energetikoa desagerrarazteari buruzkoa da), edo 38/2015 legez besteko proposamena (Gizarte Larrialdiko Laguntzek erantzun gabeko pobrezia energetikoko kasuei erantzuteko aurreikusitako partida habilitazteari buruzkoa da). Bestalde, 2016ko urtarrilaren 26an, Arartekoak 2016rako egin duen Gomendio Orokorren barruan, pobrezia energetikoaren aurka jarduteko jaso dituen proposamen eta gomendioak ere ez dira kontuan hartu.

Azkenik, 2014ko urrian Zarauzko Udaltzarrak mozio bat onartu zuen. Mozio horretan neurriak hartzeko eskatzen ziren Gobernu Zentralari eta Euskal eta Foru Gobernuari. Kontua da arazo horren inguruan ez dutela inolako konpromisorik hartu, nahiz eta urrats batzuk eman diren.

Horregatik guztiagatik, honako mozioa aurkezten dugu:

MOZIOA

1.- Zarauzko Udalak eskatu egiten die Gorteei eta Estatuko Gobernuari lege bat onar dezatela pobrezia energetikoa prebenitzeko neurriekin. Lege horrek etxebizitza bateko oinarritzko hornidura-sistema arautuko luke, mekanismoak izango lituzke aurrezkoa saritu eta kontsumo ez-eraginkorra zigortzeko, eta aldi berean, diru-sarrerara txikiko familien aldeko prezioak eta zerga energetikoa ezarriko luke. Erosteko ahalmen txikiko familietan, edo bazterkeria sozialean egoteko arriskuan dauden familietan, ohiko etxebizitzan hornidurak mozteko debekua ere jasoko luke lege horrek.

2.- Harik eta horrelako neurriak martxan jarri arte, Zarauzko Udalak Euskal Gobernuari eskatzen dio, gai honekin zerikusia daukaten administrazio eta eragile ekonomiko eta sozialekin batera, plan bat jar dezatela martxan Euskadin pobrezia energetikoa desagerrarazteko. Plan horrek behar besteko aurrekontu-zuzkidura eduki beharko luke AESak, hau da, Gizarte Larrialdiko Laguntzak finantzatzeko, hartara, pobrezia energetikoko kasu guztiei erantzun ahal izango litzaieke eta, baita ere, 2016ko urtarrilaren 26an Arartekoak aurkeztu zuen Gomendio Orokorreko neurriei ere.

3.- 3 hilabeteko epean, pobrezia energetikoaren aurkako udal plan bat egin eta onartzeko konpromisoa bere gain hartzen du Zarauzko Udalak; helburua da gure udalerrian arazo hau errotik kentzea. Plan horretan gutxienez honako neurriak egon beharko dira:

- Benetako diagnostiko bat egingo da, jakiteko, Zarautzen zenbat pertsonak dauzkaten arazoak etxebizitza tenperatura egokian edukitzeko, eta zenbat jendek daukan pobrezia energetikoa jasateko arriskua
- Gure udalerrian energia hornitzen duten enpresekin hitzarmenak izenpetuko dira, ahulezia-egoeran dauden bezeroak babesteko. Hitzarmenaren helburua izango da Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituztenek faktura ez ordainduta ere, hornidura ez etetea; enpresa hornitzailea Udaleko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarriko litzateke energia eten baino lehen.
- Gizarte Larrialdiko Laguntzak bermatuko dira pobrezia energetikoari aurre egin eta ebitatzeko, batez ere neguko hilabeteetan.
- Gastu energetikoa ordaintzeko Gizarte Larrialdiko Laguntzak emateaz gain, kostu energetikoa murrizteko auditoretza energetikoak edo aholkularitza-programak izenpetuko dira (kontratatzeko moduari edo kontsumoa murrizteko ohiturei buruzkoa izango da aholkularitza).
- Udalarenak diren etxebizitza eta apartamentu babestuetan auditoretza espezifikoak egingo dira, bertako efizientzia energetikoa hobetzeko neurriak hartzeko eta pobrezia energetikoaren arriskutik babesteko esleipendunak.

4.- Mozio honen berri emango zaie honakoei:

- Espainiako Gobernuari
- Diputatuen Kontseiluan ordezkariak daukaten talde parlamentariari
- Eusko Jaurlaritzari
- Euskal Parlamentuan ordezkariak daukaten taldeei
- Zarauzko herritarrei, udalaren web orrian lehentasunezko tokian argitaratuta eta herriko komunikabideetara bidalita.

Gaia eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	–	

Beraz, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako mozio hori atzera botatzea.

11.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA, ABENDUAREN 3a, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JAIEGUNA IZENDATZEKO MOZIOA

2016 O 001 0029 espedientea

Hurrena, IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

JUSTIFIKAZIOA

Euskararen Egunaren aldeko lehen aldarrikapenak aspalditik datoz: Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaleak Bazkunaren laguntzarekin, Errepublikan zehar, poesia topaketak antolatu zituen. Aipatzekoa da, baita ere, Iparraldera joandako iheslariak Euskaltzaleen Biltzarraren izenarekin Gerra Zibilaren ondoren egindako lana. Garai hartakoa da, hain zuzen, Eusko Ikaskuntzak antolatutako lehen Euskararen Eguna (1949).

Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak izaera ofiziala eman zioten 1995ean Euskararen Nazioarteko Egunari, eta ordutik urtero ospatzen da abenduaren 3an. Data horretan, elkarte desberdinek, entitate publiko eta partikularrek jarduera ugari antolatzen dituzte (mahai-inguruak, erakusketak, lantegiak, azokak, aurkezpenak eta era askotako ikuskizunak), euskarari lagundu eta omenaldia egiteko.

Zarauzko Udalak ere badu Euskararen Eguna ospatzeko jardueren agenda bat aurten, aurreko urteetan bezala.

Azken 35 urteetan zehar euskararen inguruan adostasun handiak egon dira euskal herritarren artean, eta horrek aurrerapen handiak ahalbidetu ditu bere ezagueran eta erabileran. Bide horretan Euskadik 300.000 euskal hiztun baino gehiago irabazi ditu, eta euskara kokatu da historikoki egon ez zen eremu sozialetan.

Euskara nortasun eta adostasun ikurra da Euskadin, eta horregatik egokiena da Euskararen Nazioarteko Eguna Euskadiko jaiegun izatea. Modu horretan konponduko litzateke gabezia historikoa, eta euskal herritar guztiek partekatutako jai bat izango genuke.

Horregatik, Irabazi Zarautzek hurrengo mozioa aurkezten du.

MOZIOA

LEHENENGOA: Zarauzko Udaleko Osoko Bilkurak Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna, 2017tik aurrera jaiegun bezala ezartzeko.

BIGARRENA: Mozio honen berri ematea Eusko Legebiltzarreko talde guztiei, Eusko Jaurlaritzari eta Zarauzko herritarrei, Udalaren web-orriaren bitartez eta tokiko komunikabideen bitartez.

Mozioa hizpide hartuta, eztabaida eta bozketa egin dituzte. Honela geratu da:

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Horrenbestez, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU aurreko mozioa atzera botatzea.

12.- IRABAZI ZARAUTZ UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA: ZARAUZKO KALE, TOKI ETA ERAIKINEI EMAKUME IZENAK JARTZEKO MOZIOA

2016 O 001 0031 espedientea

Azkenik, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako hirugarren proposamena irakurri dute. Hona hemen mozioa:

ZIOEN AZALPENA

Bihar, azaroak 25, "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA" ospatuko dugu, eta Udal honek horri buruzko aho bateko Adierazpen Instituzionala egingo du.

Guk bat egiten dugu adierazpenarekin, baina, kontuan hartuta gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzeko bide luzean lan asko dagoela egiteko arlo guztietan, horietako arlo bati heldu nahi diogu, gure ustez funtsezkoa delako: gure herriaren historian garrantzitsuak izan diren emakume jakin batzuei aitortza egitea.

Zarauzko emakume aipagarrien azterketa bat egin zen 2007an. Lan hori oinarri modura har daiteke proposamen zehatz bat egiteko. Helburua da emakume horien

presentzia handitzea herriko kale eta lekuetan. Azterketa-lan hura, baina, ahaztu egin zen, nahiz eta baliagarria izan daitekeen gizon eta emakume izenei dagokienez gure kale-izendegian dauden eta oraindik jarraitzen duten aldeak murrizteko.

Historia ofizialak ezkutuan eta baztertuta eduki gaitu beti emakumeak. Inoiz ez da aitortu emakumeek hainbat arlotan egindako lana (arlotan sozialean, kulturean, zientifikoan, medikoan edo beste edozeinetan).

Gure asmoa da emakume horien historia ezagutaraztea eta herritarren artean zabaltzea, gure komunitatearen garapen sozialaren alde egin duten lanaren adierazgarri direlako.

Horiek horrela, honako hau planteatzen dugu:

1.- Emakumeen Kontseiluak bultzatuta eta Berdintasunaren III Planaren baitan, prozesu bat hasia berdintasunaren arloan herrian lan egiten duten eragile sozial guztien parte-hartzea bermatzeko, helburu batekin: herrian garrantzi berezia izan duten emakumeen izenak edo emakumeen lanbide-izenak jartzea herriko kale, leku eta eraikin publiko jakin batzuei. Prozesu hori 2017ko martxoaren 8an bukatuko da izendapen berria inauguratuta.

2.- Oinarri modura hartzea Udalaren 2007ko proposamena: “Zarauzko emakumeak” kale-izendegiaren ikerketa (teknikaria: Maitane Baraibar Caballero). Proposamen hori osatu ahal izango da parte-hartze prozesuan egindako ekarpen berriekin.

3.- Gainera, izendapen berrientzat dokumentazio bat sortuko da. Hor azalduko da izen bakoitzak Zarauzko emakumeen aitortza sozialean zer merezimendu duen eta zer ekarpen egin dituen. Gida hori izan dadila gizarteko arlo guztietan – eta bereziki jende gaztearen artean – emakumeen sentsibilizazio, zabalkunde eta aitortzan sakontzeko.

Eztabaidaren bukaeran, batzarburuak horrela aginduta, proposamena bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	–	

Ondorioz, adierazitako gehiengoaz, atzera bota dute IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak aurkeztutako mozio hori.

13.- ESKARI-GALDERAK

Gai-zerrendako puntu honetan gai hauek izan dituzte hizpide:

- Isunak Euskal Jai Egunean kartel batzuk lekuz kanpo jartzeagatik.

- TAO zerbitzuari buruzko informazio eskaera: gaur egungo kontratua, hurrengo esleipena egiteko pleguak.
- Herrian bertan produktuak erosteko kanpaina berria.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamarrak hogeita bost gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.